# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia | Iruña, 2012ko urtarrilaren 11 | 4. ZK.

**A U R K I B I D E A**

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—Nafarroan Haur hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte) kudeatzeari buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

# Nafarroan Haur hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte) kudeatzeari buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko uztailaren 4an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroan Haur hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte) kudeatzeari buruz egindako fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## Nafarroan Haur hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte) kudeatzeari buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (2. or.).

**II.** Haur hezkuntzako lehen zikloa. (3. or.).

II.1. Alderdi orokorrak (3. or.).

II.2. Egungo egoera (4. or.).

II.3. Aplikatzekoa den araudia (5. or.).

**III.** Auditoriaren helburuak eta norainokoa (5. or.).

**IV.** Ondorioak eta gomendio orokorrak (6. or.).

IV.1. Orokorrak (6. or.).

IV.2. Aurrekontu-gastua (6. or.).

IV.3. Jardueren legezkotasuna (7. or.).

IV.4. Jarduera (7. or.).

**V.** Iruzkinak eta ondorioak (9. or.).

V.1. Ikastetxeak baimentzea: (9. or.).

V.2. Ikastetxeak eraikitzeko obretarako diru-laguntzak (11. or.).

V.3. Ikastetxeen funtzionamendu- eta ekipamendu-gastuak finantzatzeko hitzarmenak. (13. or.).

V.4. Gizarte gaietako departamentuaren menpeko haur eskolak (13. or.).

V.5. Etxe lagunak (15. or.).

V.6. Jarduerari buruzko azterketa (15. or.).

1. eranskina: obrengatiko diru-laguntzak (20. or.).

2.1. eranskina: funtzionamendurako diru-laguntzak (21. or.).

2.2. eranskina ekipamendurako diru-laguntzak (23. or.).

### I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganberak, 2011rako lan programaren barruan, Nafarroako haur hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) egoeraren gaineko fiskalizazioa sartu zuen.

Auditore batek eta auditoriako bi teknikarik osatutako lan-talde batek egin du lana. Era berean, Nafarroako Comptos Ganberako zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostenak lau atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarrenean, 0-3 zikloari buruzko alderdi orokorrei buruzko deskribapen laburra egiten da. Hirugarrenak fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa aurkezten ditu. Laugarrenean, ondorio eta gomendio orokorrak aurkezten dira, eta bosgarrenean, iruzkin batzuk sartzen dira, txostena ulertzen laguntzen dutenak eta ondorioak osatzen dituztenak.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko eta Gizarte Ongizateko Departamentuko langileei eta Nafarroako Mendekotasun Agentziakoei lan honen prestakuntzan eman diguten laguntza eskertu nahi diegu.

## II. HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA.

### II.1. ALDERDI OROKORRAK

Historikoki, haurtzaindegiak arduratzen ziren hiru urte bitarteko haurrak eskola-etapetan sartu aurretik zaintzeaz, eta zaintze horrek gehiago zuen laguntza izaeratik hezkuntzatik baino. Izan ere, 3-6 urteko zikloa orain dela jada urte asko sartu zen hezkuntza sisteman, nahiz eta derrigorrezko etapa bat ez izan. Hori dela eta, 0-3 urteko zikloa Gizarte Ongizatearen Departamentuaren menpe zegoen.

Haurtzaindegiak, oro har, udalen eta ekimen pribatuaren menpe zeuden, bai eta Estatuko organismoen (Gizarte Laguntzaren Institutu Nazionala) menpe ere.

Sistema autonomikoa garatzearekin, estatuak autonomia erkidegoei eskualdatu zizkien haurtzaindegiak, eta Nafarroaren kasuan, gero, foru gobernuak eskumen hori udalei eskualdatu zien, salbu eta Gizarte Gaietako Departamentuaren menpe geratu ziren zortzi haurtzaindegiren kasuan.

Iritzi-joera handi baten arabera, hau ere hezkuntza zikloa bada. Nafarroan, Iruñeko Udalaren menpeko “haur eskolak” pentsamendu-ildo horren adierazgarri argia dira.

Arauen ikuspuntutik, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko 1990eko Legea da lehenengo aldiz Espainian haur hezkuntzako etaparen hezkuntza-izaera aitortzen duena. Borondatezko izaera ematen zaion arren, administrazio publikoak premiatzen dira ikasle-postuen kopuru jakin bat berma dezaten, eta ezartzen da hitzarmenak egin ahalko dituztela toki korporazioekin, beste administrazio publiko batzuekin eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin.

2000-01 ikasturtean zehar, haur hezkuntzako lehen zikloaren ezarpena gauzatzen da lehentasunezkotzat jotako toki entitateetan eta horixe eskatua duten toki entitateetan, eta haur hezkuntzako ziklo hori arautzen duen foru dekretuak indarra hartu arte, abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpena onetsi zen; haren bidez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta udalen artean hitzarmenak sinatzeko oinarriak ezarri ziren.

2005etik aurrera, Hezkuntza Departamentuak bere gain hartu zuen ziklo honen kudeaketa.

2006ko Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak zikloaren borondatezko izaerari eusten dio, eta administrazio publikoak premiatzen ditu lehen zikloko ikasle-postu publikoen eskaintza handiagoa pixkanaka susta dezaten, eta haien eta beste entitate batzuen arteko lankidetza-politikak koordina ditzan, zikloaren hezkuntza-eskaintza ziurtatze aldera.

Halaber, ezartzen du hezkuntza administrazioek haur hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza-edukiak zehaztu behar dituztela, ziklo hori irakasten duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak arautu behar dituztela, betiere ere ikasleak-ikaslea zenbakizko erlazioari, instalazioei eta ikaspostuen kopuruari dagokionez.

Hezkuntza sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezarri zuen ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuak, 4. artikuluan, arautu zuen haur hezkuntzako lehen zikloa ezarri baino lehen, eta, nolanahi ere, 2007ko abenduaren 31 baino lehen, hezkuntza administrazioek ezarri beharko dituztela haur hezkuntzako lehen zikloa irakasten duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak.

Nafarroako Foru Komunitatean martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua onetsi zen, Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori irakasten duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena.

Dekretu horren aitzinsolasean, honakoa esaten da: “Nafarroako Gobernuak foru dekretu honen bidez lortu nahi du Nafarroako Foru Komunitateko haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeek kalitatezko hezkuntza guneak izatea, desberdintasun pertsonal, kultural eta sozialen konpentsazio gune; era berean, ongi antolatu nahi dira, haurrei, familiekin batean, beren nortasuna eta gaitasunak garatzeko prozesu ezin hobea eskaintzeko, ongizate eta segurtasuneko esparru batean.

Horrekin batera, Nafarroako Gobernuaren nahia da ikastetxeak Foru Komunitateko aniztasun geografiko eta kulturalari egokitutako zerbitzua izatea, antolaketa malgua izanen duena, familiei erantzuteko gai izanen dena, guraso eta langile gisa duten lana bateratzeko erraztasunak emanez”.

Dekretuak lau titulutan antolatutako artikuluak dauzka:

• I. tituluan zikloaren antolamendua aipatzen da: ezaugarriak, proposamen pedagogikoa, helburuak, printzipio pedagogikoak, ebaluazio-printzipioak eta familiekiko lankidetza.

• II. Titulua. Hezkuntzaren ekitatea. Zikloaren izaera prebentibo eta konpentsatailea nabarmentzen da, eta neurri batzuk zehazten dira hezkuntza laguntzarako premia bereziak dituzten haurrei laguntza emateko.

• III. Titulua. Ikastetxeak. Ordutegia eta egutegia ezartzen dira, bai eta ikastetxeetako langileen baldintza fisikoak ere, eta ikastetxeen parte-hartzea eta autonomia aipatzen dira.

• IV. Titulua. Ikastetxeak sortzea eta baimentzea. Haur eskola publikoak sortzeko izapideak eta prozedura zehazten dira, bai eta haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatuak baimentzeko izapideak eta prozedura ere.

Lehenengo xedapen iragankorrean ezartzen da ezen, foru dekretuak indarra hartzeko unean, 3 urtetik beherako haurrak hartzen dituzten ikastetxeek, irakaskuntza hori ezarri (2008/2009 ikasturtea) eta hiru urteko epea izanen dutela eskatzen diren baldintzetara egokitzeko eta, udal titulartasuneko ikastetxeen kasuan, ikastetxea foru dekretuko IV. tituluan ezarritakoari jarraikiz eratzeko.

II.2. EGUNGO EGOERA

Honela laburbil daitezke 2010/2011 ikasturteari buruzko datuak:

**Udal titularitateko ikastetxeak: 90**

Eskainitako ikaspostuak: 5.718.
Betetako ikaspostuak: 5.246.

**Gizarte Gaietako Departamentuak kudeatutako ikastetxeak: 8.**

Eskainitako ikaspostuak: 544.
Betetako ikaspostuak: 546.

**Ikastetxe pribatuak (ikaspostuak 74 ikastetxeri dagozkie): 80.**

Eskainitako ikaspostuak: 3.825.
Betetako ikaspostuak: 3.089.

Ikastetxe pribatu horiek ez dute Nafarroako Gobernuaren inolako diru-laguntzarik jasotzen.

Haur eskola publikoen sorrera honela gauzatzen da: Hezkuntza Departamentuak eta administrazio publiko interesdunek hitzarmenak egiten dituzte, eta azken horiei dagokie sortutako ikastetxeen titularitatea. Hitzarmenetan ezarriko dira, besteak beste, ikastetxearen ezaugarriak eta funtzionamendua, bai eta, kasua bada, finantzaketarako araubidea ere.

Haur hezkuntzako ikastetxe pribatuek irekitzeko eta funtzionatzeko baimen administratiboa behar dute. Baimena eduki ahal izateko, ikastetxeek foru dekretuan eta aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoak bete beharko dituzte.

2011ko maiatzean, 30 ikastetxe publiko zegoen sorturik eta beste hamabost sortzeko izapideak egiten ari ziren; baimendutako ikastetxe pribatuak, berriz, zazpi ziren, eta beste 22 baimentzeko izapideak egiten ari ziren.

Honakoa da aurreko datuetan gertatzen den aldearen arrazoia: ikastetxe batzuek ez dute sorrera edo baimena eskatu.

2005etik 2010era, 0-3 urteko ikastetxeetan inbertsioak egiteko diru-laguntzak 23 milioi eurokoak izan ziren; funtzionamendu-gastuak finantzatzeko diru-laguntzek 45 milioi euro egin zuten eta ekipamendurako diru-laguntzek, berriz, 5,6 milioi euro.

2009-2010 ikasturtean, funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzek 8,75 milioi euro egin zuten, eta ekipamendu-gastuetarako diru-laguntzek, berriz, 0,74 milioi euro. Guztira, beraz, 9,5 milioi euroko diru-laguntzak eman dira.

Finantziazio hori foru aginduen bitartez dago araututa. Departamentuak kudeaketa-gastuak finantzatzen ditu, gehienez ere ezarritako moduluaren % 75eraino, familiek ordaindutako tarifak kenduta; jantokiko gastuak honela finantzatzen dira: ezarritako gehieneko moduluaren eta familien ekarpenaren arteko aldea. Udalek erabakitzen badute zerbitzuak moduluan ezarritakoez gainetik areagotzea, udala bera izanen da haiek finantzatu beharko dituena.

Zuzenean Gizarte Gaietako Departamentuaren menpekoak diren 8 eskolek departamentu horretako aurrekontuetatik jasotzen dituzte funtsak.

Ikastetxe publikoetan ikasleak onartzeko arauak bateratuak dira Nafarroa osorako.

Familiek ordainduko dituzten tarifak Hezkuntza Departamentuak ordaintzen ditu, foru agindu bidez. Honakoak dira 2010-2011 ikasturteko hilabeteetako gehienekoak eta gutxienekoak, familien errentaren menpekoak direnak:

| | Gehienekoa | Gutxienekoa |
|---|---|---|
| Lanaldi osoa | 213 | 17 |
| Lanaldi murriztua | 201 | 16 |
| Lanaldi erdia | 151 | 13 |
| Jantokia | 95 | 52 |

Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroak (NHBBZ) baimena ematen du hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak zuzenean sartzeko, eta Hezkuntza Departamentuak ikasle horietarako behar diren hezitzaileak finantzatzen ditu.

Aintzat hartu beharreko beste alderdi bat da Gizarte Gaietako Departamentuaren menpean “etxe lagunak” deitutakoak jarri direla abian. Sistema hori lana eta familia bateragarri egiteko baliabide bat da, eta haren bidez hiru urtetik beherakoei arreta ematen zaie, talde txikitan eta zaintzailearen etxean. 2010ean 22 etxek jardun dute zeregin horietan, eta bi elkartetan daude bildurik. Elkarte horiek dira Gizarte Gaietako Departamentuari diru-laguntzak eskatzen dizkiotenak eta diru-laguntza horiek jasotzen dituztenak.

Honakoak dira Hezkuntza Departamentuan ziklo hori kudeatzen dutenak:

• Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzua, Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiaren menpekoa. Ikastetxeak baimentzeko eta sortzeko ardura duena da.

• Obren Zerbitzua, Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiaren menpekoa. Ikastetxeak eraikitzeko diru-laguntzen arduraduna da.

• Ikuskapen Zerbitzua. Honakoen ardura dauka: ikastetxeen kontrola eta ikuskatzea; hezkuntzari eta kudeaketari buruzko proiektuei buruz informatzea; ikastetxeko antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak.

• Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiko Ikasketen Antolamendu Zerbitzuaren menpeko Haur Hezkuntzako Lehen Zikloaren Atala, besteak beste finantziaziorako lankidetza-hitzarmenak kudeatzeaz arduratzen dena.

Gizarte Gaietako Departamentuko Familia Zerbitzua eta Nafarroako Mendekotasun Agentzia, Nafarroako Gobernuaren menpeko zortzi ikastetxeen kudeaketaz arduratzen direnak.

### II.3. APLIKATZEKOA DEN ARAUDIA

Honakoa da haur hezkuntzako ziklo hau ukitzen duen araudia:

• 18/2004 Foru Legea, 2005erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa

• 41/2005 Foru Agindua, 173/2008 Foru Agindua, aurrekoa aldatzen duena, eta 107/2010 Foru Agindua, hura indargabetzen duena. Hirurek Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen arteko hitzarmenak egiteko oinarriak arautzen dituzte.

• 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzkoa. Ikasketen antolamendua eta haien etapak arautzen ditu.

• 806/2006 Errege Dekretua, hezkuntza sistemaren antolamendu berrian aplikatzekoa den egutegia ezartzen duena.

• 28/2007 Foru Dekretua, haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa garatuz.

• 95/1987, 96/1987 eta 97/1987 foru dekretuak, haurtzaindegiak Atarrabiako, Tuterako eta San Adriango udalei transferitzen dizkietenak.

• 251/1988 Foru Dekretua, Barañaingo haurtzaindegia transferitzen duena, eta 269/1991 Foru Dekretua, aurrekoa aldatzen duena.

• Ikuskapen eta Zerbitzuen zuzendari nagusiaren zenbait ebazpen, 0-3 urteko haur hezkuntzako ikastetxeak eraikitze aldera toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdiak onesten dituztenak.

• 27/2006 Foru Agindua, zeinaren bidez sailkatu egiten baita laneko eta familiako eginkizunak bateratu ahal izateko baliabide hau: “hiru urtetik beherako haurrak zaintzaileen etxean zaintzeko zerbitzua”.

• Gizarte Gaietako kontseilariaren zenbait foru agindu, 27/2006 Foru Agindutik eratorritako diru-laguntzetarako deialdiak onesten dituztenak.

• Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legea.

• 132/2010 Errege Dekretua, martxoaren 12koa, lanbide-titulazioetarako baldintzak ezartzen dituena.

• Zenbait foru agindu edo ebazpen, ikasturte bakoitzerako ikasleen onarpena, egutegia eta tarifak ezartzen dituztenak.

## III. AUDITORIAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lan honek honako helburuak dauzka:

a) Amaitu den azken ikasturteko (2009-2010) aurrekontu-exekuzioa aztertzea. Bistakoa den bezala, bi aurrekontu-ekitalditan du eragina.

b) Egiaztatzea ea 0-3 zikloa aplikatzekoa den araudiaren arabera kudeatzen den.

c) Nafarroan 0-3 zikloak duen egoerari buruzko azterketa bat egitea, honako alderdiak egiaztatuz, besteak beste:

• Zer ikastetxe dauden.

• Ikastetxeetan zein unitate dauden.

• Eskainitako ikaspostuak.

• Betetako ikaspostuak.

• Aurreko datuak herrien arabera eta ikastetxe publiko nahiz pribatuen arabera nola antolatzen diren.

• Funts publikoetarako zer kostu duten.

• Ase gabe geratutako eskaria.

Txostenari egokitzat jo ditugun gomendioak gehitu dizkiogu, ezarritako kudeaketa-sistema hobetzeko edo osatzeko.

Lanaren norainokoan arestian adierazitako unitate organikoak sartzen dira, beraiek baitira kudeaketaren arduradunak. Lana, funtsean, 2009-2010 eta 2010-2011 ikasturteei buruz egin da. Hala eta guztiz ere, egokitzat jo diren ataletan, funtsean obretarako diru-laguntzenean, aurreko urte batzuetako jarduera ere aztertu dugu; hain zuzen ere, gure lana egiteko behar adina informazio edukitzeko beharrezkotzat jo ditugun urteetako jarduera.

Halaber, “haur hezkuntzako lehenengo zikloaren atalak” eginiko txosten eta azterlan batzuk eskuratu ahal izan ditugu, eta haiei esker errazago lortu ditugu zenbait datu eta informazio.

Ikasturtearen iraupena aurrekontu-ekitaldiaren iraupenaz bestekoa denez, zenbaitetan estimazio ekonomikoak egin beharrean aurkitu gara. Gizarte Gaietako Departamentuan eskoletako gastuak eta diru-sarrerak kontabilizatzeko moduak –departamentukoetan sartzen ditu– zailago egin digu datu batzuk ikastetxeen arabera banakatzea. Bestalde, zenbait ikastetxe pribatu badaude baimenik eskatu ez dutenak. Ez dago bermaturik departamentuak haien guztien existentzia eta, horrenbestez, eskaintzen dituzten ikaspostuak, ezagutzen dituenik, eta hori lan hau egiteko muga bat izan da.

Lana egin da sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Comptos Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arauei jarraituz, lanaren berezitasunak direla-eta egin behar izan diren egokitzapenekin.

## IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

Ondoren, egindako lanetik eratorritako ondorio eta gomendioak aurkeztuko ditugu:

### IV.1. OROKORRAK

1. 0-3 urteko hezkuntza zikloaren arretak honako bilakaera izan du: nagusiki lagungarritzat hartua izatetik hezkuntzakotzat hartua izatera pasa da; eta horrenbestez, Gizarte Ongizateko Departamentuaren (Gizarte Gaiak) menpekoa izatetik Hezkuntza Departamentuaren menpekoa izatera.

2. Ziklo hau haur hezkuntzako (0-6 urte) lehenengoa da, eta ez da derrigorrezkoa. Hala eta guztiz ere, adierazi beharra dago 3-6 urteko zikloa, bigarrena, hezkuntza sisteman guztiz integratuta dagoela, eta esan daiteke Nafarroan bigarren zikloa unibertsala eta doakoa dela.

3. Derrigorrezkoa ez izatearen ondorioz eta haren garapenaren prozesu historikoaren ondorioz, 3 urtera arteko haurren laguntza honela ematen da:

a) Nafarroako Gobernuari transferitutako eskolak, Gizarte Gaietako Departamentuak kudeatzen dituenak (8 eskola eta 546 ikasle). Departamentu horrek finantzatzen ditu.

b) Nafarroako Gobernuari transferitutako eskolak, gobernu horrek udalei transferitu dizkienak (4 eskola). Berariazko hitzarmenen bitartez finantzatzen dira.

c) Udalen eta Nafarroako Gobernuaren artean itundutako ikastetxe publikoak (86 dira). Deialdi orokor baten bitartez finantzatzen dira.

90 ikastetxe horiek 5.246 ikasle dauzkate.

d) Ikastetxe pribatuak: 80 dira, eta 3.089 ikasle artatzen dituzte. Ez dute finantziazio publikorik.

Aurrekoei “Hiru urtetik beherakoen arreta-zerbitzua zaintzaileen etxean” (Haur-etxeak) deitutakoa gehitu behar zaie. Izan ere, 22 etxe dira, 3 urtetik beherako 104 adingabe inguru artatzen dituztenak. Gizarte Gaietako Departamentuaren deialdi baten bitartez finantzatzen dira.

Finantziazio ereduen heterogeneotasuna dela eta, aldeak daude ikastetxeetako gastuen artean.

### IV.2. AURREKONTU-GASTUA

4. Honakoa izan da kontzeptu desberdinak direla-eta 2005etik 2010era kontabilizatutako gastua:

Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntzak:

| | |
|---|---|
| – Lanetarako, | 23.067.423 euro |
| – Funtzionamendurako, | 45.167.711 euro |
| – Ekipamendurako, | 5.591.221 euro |
| Guztira, | 73.826.355 euro |

Gizarte Gaietako Departamentua:

| | |
|---|---|
| – Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua, | 2.816.765 euro |
| – Inbertsioetan egindako gastua, | 4.916.126 euro |

Ez dira sartzen haur eskoletako langileen gastuak. Eskola horien 2009-2010 ikasturterako guztizko gastua 4.356.258 eurokoa dela kalkulatu da.

Etxe lagunak (diru-laguntzak), 1.386.775 euro

5. "Etxe lagunak" izeneko ekimena kudeatzen duten bi entitateentzako diru-laguntzak eskabideak aurkezten diren datuaren arabera baloratzen eta ematen dira. Lehenengoak lortzen duen puntuazioaren arabera, diru-laguntzaren dagokion ehunekoa ematen zaio, eta aurkezten den bigarren entitateari eman beharreko diru-laguntza mugatuta gelditzen da erabilgarri geratzen den kreditura.

Ez dago ezer ere arauturik baliabide hori erabiltzen duten familiek ordaintzen dituzten tarifei buruz.

### IV.3. JARDUEREN LEGEZKOTASUNA

6. Garaturiko jarduera, oro har, arau indardunen arabera egiten da. Hala eta guztiz ere, honakoak nabarmendu behar dira:

a) Ikastetxeek dituzten jatorri eta araupetze desberdinak (udalei transferitutakoak, Gizarte Gaietako Departamentuaren menpekoak eta gainerakoak) eta, beraz, arau gisa dituzten baldintzak direla eta, desberdina da familiek, gobernuak eta udalek haien finantziazioan duten parte-hartzea.

b) Ikastetxeak eraikitzeko diru-laguntzak eman dira bai deialdi publiko bidez, bai zuzenean, parlamentu-zuzenketa baten ondorioz. Parlamentuak aurrekontuei aurkeztutako zuzenketen bitartez zuzeneko diru-laguntzak emateko daukan ahalmena ezertan ere kendu gabe, uste dugu deialdi publikoen paraleloan doan bide horrek berdintasunaren, lehia askearen eta objektibotasunaren printzipioak urratzen dituela, eta horiexek dira, araudiak dioenez, gisa horretako laguntzak ematerakoan gailendu behar diren printzipioak. Gainera, aztertutako kasuetan, deialdietan ematen diren kopuruen mugak gainditzen dira.

c) Jada existitzen diren ikastetxeak arauetara egokitzeko aldi baterako garaian gaude. Ikastetxeen erdiak baino gehiagok –direla ikastetxe publikoak, direla pribatuak– ez du sortzeko edo baimentzeko eskabiderik egin. Hori dela eta, pentsa daiteke, egokitze-aldia amaiturik, ikastetxe batzuk sortu edo baimendu gabe geratuko direla.

Bestalde, oso litekeena da ikastetxe batzuek ezin betetzea araudian ezarritako baldintzak, eta horrek arazoak eragin ditzake 0-3 zikloaren kudeaketan, nahiz eta Hezkuntza Departamentuak jarduketa-plan bat hasia duen egoera hori gerta ez dadin.

### IV.4. JARDUERA

7. Honakoak dira 2010-2011 ikasturtean dauden ikastetxeak:

| Ikastetxeak | Kopurua | Eskainitako ikaspostuak | Betetako ikaspostuak |
|---|---|---|---|
| Publikoak | 90 | 5.718 | 5.246 |
| Pribatuak * | 80 | 3.825 | 3.089 |
| Gizarte gaiak | 8 | 546 | 532+14 |

* Datuak 74 ikastetxeri dagozkie.

Aukera ematen da ikaspostuen kopurua gainditzeko, baldin eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak badaude. Gizarte Gaietako Departamentuaren eskolen kasuan 14 dira; eta udal titularitateko ikastetxeen kasuan 90 ikasle dira hezkuntza premia bereziak dituztenak.

Egindako laginketatik, ondorioztatzen da eraikitako ikasgela gehiegi daudela –haien eraikuntza diruz lagundu zen–, okupatuta daudenei erreparatuz gero.

8. 3 urtetik beherako populazioa kontuan hartuta, honakoa da eskualdeen araberako estaldura:

Haur eskoletako ikaspostuen balizko eskariaren estaldura-adierazlea. 2010-2011 ikasturtea

| | Biztanleak | 0-3 urte | Ikastetxe publikoen estaldura | Ikastetxe pribatuen estaldura | Estaldura, guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Iruña | 198.833 | 5.127 | % 27,44 | % 30,10 | % 57,54 |
| Iruñerria | 134.214 | 4.740 | % 38,82 | % 33,76 | % 72,58 |
| Pirinioak | 14.967 | 334 | % 53,29 | % 5,99 | % 59,28 |
| Lizarrako eskualdea | 37.804 | 865 | % 30,29 | % 30,06 | % 60,35 |
| Tafallako eskualdea | 32.891 | 783 | % 42,27 | % 5,62 | % 47,89 |
| Sakana-Bidasoa | 56.782 | 1.506 | % 28,82 | % 12,68 | % 41,50 |
| Goi Erribera | 59.169 | 1.428 | % 52,03 | % 1,89 | % 53,92 |
| Behe Erribera | 88.090 | 2.313 | % 46,09 | % 3,67 | % 49,76 |
| **NAFARROA** | **630.578** | **17.096** | **% 36,22** | **% 22,13** | **% 58,35** |

Horrenbestez, beharrizanen estaldura desberdina dago eremuen arabera, eta estaldura horren osaera ere desberdina da ikastetxe publikoetan eta pribatuetan.

9. Egindako laginketaren arabera, ikusten da nabarmentzeko moduko aldea dagoela ikasgela bakoitzeko eta ikasle bakoitzeko gastuen artean. Horrela, udalaren titularitatekoak diren ikastetxe publikoetan kudeaketa gastuak, ikasgela eta ikasle bakoitzeko, 58.153 eurokoak izan ziren, eta 5.037 eurokoak ikasturte bakoitzeko. Gastu handiena eta txikiena izan dutenen arteko proportzioa 1,8koa izan da. Eskualdatutako udal titularitateko ikastetxeen kasuan, gastuak aurrekoen batez bestekoa baino % 50 handiagoak izan dira.

Gizarte Gaietako Departamentuaren menpeko ikastetxeetan, guztizko gastuak (kudeaketa gehi hezkuntza premia bereziak gehi jantokiak) 81.425 eta 8.052 eurokoak izan dira ikasgela bakoitzeko eta ikasle bakoitzeko, ikasturte bakoitzean. Gastu handiena eta txikiena izan dutenen arteko proportzioa 1,5ekoa izan da.

Hori dela eta, hona gure gomendioak:

• *Aurrekontuan kontusail izendunak sar daitezela saihestea, deialdi orokorretarako kontusailak daudenean.*

• *Legeak egiterakoan aztertzea ea aukera errealik baden dauden ikastetxeak exijitutako baldintzetara egokitzeko, eta egokitzeko modurik ez badute, nolako ondorioak izanen diren.*

• *Jarduketa plan bat ezartzea, ikastetxeak egokitzeko epea iragan ondoren, horietako batzuek egokitzapen hori egiteko modurik izan ez duten kasuetarako.*

• *Sistemaren bat ezartzea, Hezkuntza Departamentuak ezagut ditzan 3 urtetik beherako haurrak artatzen dituzten ikastetxe guztiak, modu jarraitu eta sistematikoan.*

• *Erabiltzaileei erraztasunak ematea, ezagut dezaten ikastetxe pribatu bat departamentuak baimenduta dagoen ala ez.*

• *Erabiltzaileei erraztasunak ematea ikastetxeen titularrak diren pertsona fisikoak ezagut ditzaten, ikastetxeak enpresen bitartez kudeatzen diren kasuetan.*

• *Ikasgeletako premia errealak aztertzea, ikastetxe publikoak eraikitzeko diru-laguntzak ematen direnean, zeren eta zenbait kasutan ikasgela gutxiago erabiltzen baitira eraiki eta diruz lagundu direnak baino.*

• *Premien estaldura modu homogeneoan eta ikastetxe publikoen bitartez orekatzeko aukera eta horren kostua aztertzea, bai eta horrek egun dauden ikastetxe pribatuetan izanen lukeen eragina ere.*

• *Kostuen eta kudeaketa-adierazleen sistema bat ezartzea, arreta protokoloetan eta hezkuntza prozesu normalizatuetan oinarritua, ikaspostu bakoitzeko eta artatutako haur-kategoria bakoitzeko urteko kostua eta, horrenbestez, hura jasangarri egiteko behar den finantziazioa ezagutzea bideratuko duena, diru-laguntzen politika homogeneoagoa egin ahal izateko, baliabideak hobekien kudeatzen dituzten ikastetxeen efizientzia sarituz.*

• *Aurkeztutako eskabideetatik abiatuta egin den azterlana osatzea, eta hura populazio osoari buruz egitea, ikaspostuen eta hizkuntza-modalitateen eskari erreala hobeki ezagutzeko; izan ere, horrek ikastetxeak hobeki planifikatzea bideratuko du.*

• *"Etxe lagunak"· direlakoak kudeatzen dituzten entitateei diru-laguntzak ematekotan, eskariak*

*banaka ebaluatzeko gaur erabiltzen den prozeduraren ordez, norgehiagoka erabiltzea.*

*• Aztertzea ez ote den komeni "Etxe lagunak" izeneko zentroen erabiltzaile diren familiek ordaindu behar dituzten tarifak erregulatzea.*

## V. IRUZKINAK ETA ONDORIOAK

Epigrafe honetan, zenbait iruzkin eta ondorio aurkezten ditugu, egindako lanetik heldu direnak eta aurreko epigrafeko ondorioak ulertzea bideratzen dutenak.

V.1. IKASTETXEAK BAIMENTZEA:

Ikastetxeak baimentzeko eskabideak "Ikastetxeen eta Ikastetxeetarako Laguntzen Zerbitzuak" izapidetzen ditu. Zerbitzu hori Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiaren menpekoa da. 28/2007 Foru Dekretuak ikastetxeek baimenduta egoteko bete beharreko baldintzak ezartzen ditu.

Haur eskola publikoen sorrera honela gauzatzen da: Hezkuntza Departamentuak eta administrazio publiko interesdunek hitzarmenak egiten dituzte, eta azken horiei dagokie sortutako ikastetxeen titularitatea. Hitzarmenetan ezarriko dira, besteak beste, ikastetxearen ezaugarriak eta funtzionamendua, bai eta, kasua bada, finantzaketa-araubidea ere.

Haur hezkuntzako ikastetxe pribatuek irekitzeko eta funtzionatzeko baimen administratiboa behar dute. Baimena eduki ahal izateko, ikastetxeek foru dekretuan eta aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoak bete beharko dituzte.

### V.1.1. Ikastetxeak sortu, baimendu eta ezartzea

Haur eskola publikoen sorrera honela gauzatzen da: Hezkuntza Departamentuak eta administrazio publiko interesdunek hitzarmenak egiten dituzte, eta azken horiei dagokie sortutako ikastetxeen titularitatea. Hitzarmenetan ezarriko dira, besteak beste, ikastetxearen ezaugarriak eta funtzionamendua, bai eta, kasua bada, finantzaketarako araubidea ere.

Haur hezkuntzako ikastetxe pribatuek irekitzeko eta funtzionatzeko baimen administratiboa beharko dute. Baimena eduki ahal izateko, ikastetxeek foru dekretuan eta aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoak bete beharko dituzte.

Lehendik existitzen diren ikastetxe publiko eta pribatuek hiru urteko epea edukiko dute irakaskuntzak ezartzen direnetik foru dekretuaren baldintzetara egokitzeko. Epe hori iraganik, baldintzak betetzen ez dituzten ikastetxeek itxi egin beharko dute. Interpretatzen da epea 2012an amaituko dela.

A) Ikastetxe publikoak sortzea

Haur eskola bat sortzeko prozedura administrazio publiko eskudunak eskatzen duenean hasten da. Eskaria Hezkuntza Departamentuari zuzendu beharko dio.

"Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzua" da espedientearen instruktorea. Profesionalen plantillei eta titulazioari buruzko txostena eginen du, eta Hezkuntza Departamentuko zerbitzu teknikoek emandako txosten guztiak biltzen ditu, eskumen-esparruaren arabera.

Obren Zerbitzua. Ikastetxearen instalazioen egokitasuna egiaztatzen du.

Ikuskapen Zerbitzua. Egiaztatzen ditu:

• Hezkuntza proiektuak eta kudeaketa proiektuak.

• Ikastetxearen antolamendurako eta funtzionamendurako arauak.

Ikasketak Antolatzeko Atala Aztertzen ditu:

• Unitate-eskaintzaren beharren eta planifikazioaren azterlana.

• Altzarien eta ekipamenduaren egokitasuna eta nahikotasuna.

Aurreko txostenak ikusita, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko Atalak ituna izenpetzeko proposamena egiten du.

Sorrera baimendurik eta ituna izenpeturik, ikastetxeak urtebeteko epea dauka hezkuntza- eta kudeaketa-proiektuak eta antolamendu- eta funtzionamendu-arauak aurkezteko.

B) Ikastetxe pribatuak baimentzea

Ikastetxe pribatuen baimen administratiboa bi fasetan egiten da:

• Hasierako fasea, non sustatzaileak kreditatu behar baitu obra proiektuak 28/2007 Foru Dekretuko 16. artikuluak exijitzen dituen baldintza fisikoak betetzen dituela.

Prozedura hasten da sustatzailearen ekimenez, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiari zuzendutako eskabide baten bitartez. Horrenbestez, eskabidea aurkezten ez bada, Hezkuntza Departamentuak ez du jakinen ikastetxea existitzen den, eta haren kontroletik kanpo geratuko da.

Ikuskapen eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiak, Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen

Zerbitzuak txostena egin ondoren, ebazpena emanen du instalazioak foru dekretuaren baldintzen araberakoak izateari buruz.

• Bigarren fasea, non, obrak eginda, langileen kreditazioari buruzko dokumentazioa, proposamen pedagogikoa eta abar aurkeztuko baitira.

Aurreko ebazpena eman ondoren eta obra amaierako ziurtagiria aurkeztu ondoren, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzu teknikoek beren eskumenen esparruaren araberako egiaztapena eta txostena eginen dituzte, ikastetxe publikoak sortzeko egiten dutenaren antzera.

### V.1.2. Lehendik existitzen diren ikastetxeak

Ikastetxeak baimentzeko edo sortzeko eskariek arestian zehaztutako prozedurari jarraitzen diote. Ikastetxeek beren ohiko jarduerarekin jarraitzen dute baimentzea nahiz sorrera izapidetzen ari den bitartean.

Honakoa da ikastetxeen egoera gure lana egiteko unean:

| Ikastetxe publikoen kopurua: | Guztizkoaren gaineko % | Egoera | Eskainitako ikaspostuak | Betetako ikaspostuak |
|---|---|---|---|---|
| 30 | 33 | sortuak | 1.833 | 1.614 |
| 15 | 17 | izapidetzen ari dira | 1.045 | 909 |
| 45 | 50 | eskaririk gabe | 2.840 | 2.723 |
| **90** | 100 | **Guztira** | **5.718** | **5.246** |

| Ikastetxe pribatuen kopurua | Guztizkoaren gaineko % | Egoera | Eskainitako ikaspostuak | Betetako ikaspostuak |
|---|---|---|---|---|
| 7 | 9 | baimendua | 269 | 215 |
| 22 | 27 | izapidetzen ari dira | 740 | 587 |
| 51 | 64 | eskaririk gabe | 2.816 | 2.287 |
| **80*** | 100 | **Guztira** | **3.825** | **3.089** |

* Ikaspostuei buruzko datuak 74 ikastetxerenak dira; izan ere, lau ikastetxeri buruzko datuak falta ditugu.

### V.1.3. Gizarte Gaietako Departamentuaren menpeko ikastetxeak

Gizarte Gaietako Departamentuaren menpeko zortzi ikastetxeek ez dute baimenik eskatu. Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuak ez daki exijitzen diren baldintzak betetzen dituzten ala ez, nahiz eta Gizarte Gaietako Departamentuko arduradunek adierazi diguten 28/2007 Foru Dekretuko baldintzak betetzen dituztela. Ikastetxe horiek 544 eskola-postu eskaintzen dituzte. Horietatik, 532 beteta daude, eta beste 14tan hezkuntza-premia bereziak dauzkaten haurrak daude. Horretarako baimena badute.

Baimenei buruzko ondorioztapen gisa, adierazi behar dugu ikastetxe baimenduen ehuneko txiki horren arrazoia izan daitekeela gutxieneko baldintzak oso zorrotzak direla.

a) Azpiegiturei dagokienez, askotan zaila da baldintza horiek betetzea (patioen tamainak ez dira behar adinakoak; ikasgelek ez dituzte betetzen ikasle bakoitzeko gomendatzen diren neurriak; batzuk pisuetan daude, eta ez dute kanpoko aldetik sarrera independenterik...).

b) Profesionalen titulazioa. 132/2010 Errege Dekretuak, zeinak ziklo horretan irakaslanean aritzeko eskatzen diren titulazioak ezartzen baitira, bi titulazio baizik ez du ontzat ematen: haur hezkuntzako maisua edo haur hezkuntzako goi mailako teknikaria (lanbide heziketa). Ikastetxe pribatu batzuetan, ikastetxearen sustatzailea pedagogiako edo psikologiako lizentziatua da, baina titulazio hori ez da ontzat ematen.

c) Behar diren erreformei ekin ahal izateko funtsen premia dela eta, egokitzea zailagoa da, bereziki ikastetxe pribatuetan, inongo diru-laguntzarik ez baitute.

Aurrekotik guztitik eta eginiko azterlanetik, honakoa ondorioztatzen dugu:

• Ikastetxe gehiegi daude –ehun baino gehiago– baimentzeko eskaria aurkeztu ez dutenak. Baliteke gutxienekok baldintzak eskatzearen ondorioz izatea hori.

• Egokitzeko behar diren epeak ikusita, litekeena da araudia egokitzeko ezarritako aldia iraganik, ikastetxe batzuek halakorik ezin egin izatea.

• Administrazio publikoak aztertu beharra dauka ea posiblea den ikastetxe horiek ixtea –legean ezarritakoa betez–, edo, bestela, ukitutako ikasleen kopuru handiari erreparatuta, baldintzak malgutu ote ditzakeen.

• Ikastetxe batzuek baimenik ez dutenez eskatu, "ezezagunak" dira Hezkuntza Departamentuarentzat. Halakorik ez litzateke gertatu beharko, hiru urtetik beherako haurrekiko lanean sor litezkeen erantzukizunak direla eta.

V.2. IKASTETXEAK ERAIKITZEKO OBRETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

Honakoak dira 2005-2010 aldian 0-3 zikloko ikastetxeak eraikitzeko eman diren diru-laguntzak:

| Urtea | Diru-laguntza |
|---|---|
| 2005 | 1.015.680 |
| 2006 | 4.400.140 |
| 2007 | 3.785.646 |
| 2008 | 4.882.140 |
| 2009 | 6.440658 |
| 2010 | 2.543.159 |
| Guztira | 23.067.423 |

57 udalek jaso dituzte zenbateko horiek. 1. eranskinean haien xehakatzea ikus daiteke, urtearen eta diru-laguntza jaso duen entitatearen arabera.

2009ko eta 2010eko bederatzi espedienteren lagin bat aztertu dugu. Guztira, 6,9 milioiko diru-laguntza egiten dute, eta diru-laguntza horrek 2005-2010 aldian diruz lagundu den guztiaren % 30 egiten du.

2009ko deialdia, 3,5 milioi euroko kreditua zuena, ebatzi zen Diru-laguntzei buruzko Foru Legean ezarritako printzipioei erantzunez eta deialdiko ebazpenak adierazitako irizpideei jarraituz. Horra:

1. Toki entitateak, 0-3 urteko zikloko ikastetxeak eraikitze aldera toki entitateei diru-laguntzak emateko 2008ko deialdian ezarritako diru-laguntza jaso zutenak.

2. Pirinioko Garapen Planekoak diren toki entitateak.

3. 0-3 urteko zikloko ikastetxeak martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuaren arabera egokitzeko obra txikiak egitea aurreikusita daukaten toki entitateak.

4. Eskariak aurkezteko epea amaitzerako lanak hasi dituzten toki-entitateak.

5. Eskariak aurkezteko epea amaitzerako proiektua egina duten toki-entitateak.

6. Proiektua eduki gabe ere, 2009ko ekitaldian lanak hastea aurreikusita duten toki entitateak.

Hau da, irizpide nagusia da deialdian sartzen den toki entitateak hurrengoetan ere irauten duela harik eta diru-laguntzaren gehienekoa lortzen duen arte –moduluaren % 65 da; % 95, berriz, Pirinio aldeko udalen kasuan–.

Espedientea osorik dago arauetan ezarritako dokumentuak barne dituela, proposamen-txostenari, txosten juridikoari, kontu-hartzailetzaren ikusonespenari eta abarri dagokienez.

Diru-laguntza kobratzeko, entitateek egiaztatu behar dute deialdian jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta obretako teknikariek dokumentazio hori ikuskatzeaz gainera, obrara aurretiko bisita bat egiten da, tokia adierazitako egoeran dagoela egiaztatzeko.

2010ean, ez da deialdirik egin, kreditu txikiagoa edukitzeagatik. Funtsean, aurreko urteetan ikastetxeei emandako diru-laguntzak osatzen dira. Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak zuzenean ematea baimentzen du, aurretik bidezko diren txostenak aurkeztuta. Une horretatik aurrera, diru-laguntzak ezarritako izapideei jarraituz ematen dira.

2009. eta 2010. urteetan, urtero aurrekontuetan sartzen diren aurrekontu-lerroez gainera, beste kontu-sail batzuk onetsi dira, aurrekontuei aurkeztutako zuzenketen bitartez.

2009an, 2.950.000 euro egiten duen zuzenketa bat onetsi zen, eta haren zioetan honakoa aipatzen da: "kontua da Vianako Udalarekin (700.000 euro), Mendaviako Udalarekin (975.000 euro), Azagrako Udalarekin (975.000 euro) eta Cascanteko Udalarekin hitzarmenak egitea. Udal horiek, izan ere, hasita daude ikastetxe horietako obrak izapidetzen, eta kopuru horiek behar dituzte 0-3 urteko ikastetxe horietako obrekin jarraitzeko edo obrak bukatzeko".

2010ean, kopurua 1.790.184 eurokoa izan zen. Honakoak izan ziren udalak: Cadreita (190.194 euro), Cascante (750.000 euro), Martzilla (600.000 euro) eta Valtierra (200.000 euro).

Eginiko laginketaren laburpena honako taulan ikus daiteke:

| Toki entitatea | Diruz lagundutako unitateen kopurua | 2010-2011 ikasturterak o eskainitako unitateen kopurua | Betetako unitateen kopurua | Obren zenbatekoa | Obren ziurtagiria | | 2010-12-31ra arte jasotako diru-laguntza | Aplikatzekoa den moduluaren gaineko ehunekoa | Justifikatutako gastuak (ordainsariak barne) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mendabia | 8 | 6 | 4 | 1.204.066 | 940.903 | 7. ziurtagirira arte | 975.000 | % 78 | 1.033.627 |
| Martzilla* | 6 | | | 1.021.459 | 591.171 | 3. ziurtagirira arte | 600.000 | % 60 | 730.312 |
| Ezkaroze (diru-laguntzaren % 95era arte)* | 2 | | | 355.671 | 317.540 | 4. ziurtagirira arte | 321.856 | % 84 | 341.356 |
| Cascante (ekipamendurako hitzarmena barne) | 8 | 8 | 6 | 935.446 | 933.297 | 6. ziurtagirira arte | 1.050.000 | % 84 | 1.003.878 |
| Burlata | 12 | 12 | 9 | 1.969.756 | 2.148.073 | Likidazioa | 1.101.449 | % 65 | 2.204.573 |
| Andosilla | 6 | 3 | 3 | 1.009.956 | 1.094.032 | Amaierako ziurtagiria | 649.985 | % 65 | 1.130.011 |
| Mendigorria | 4 | 2 | 1 | 761.246 | 882.945 | Amaierako ziurtagiria | 461.272 | % 65 | 917.923 |
| Tutera (Lourdes) | 10 | 8 | 8 | 740.740 | 751.740 | Amaierako ziurtagiria | 506.706 | % 65 | 810.436 |
| Viana | 8 | 6 | 3 | 2.167.579 | 2.015.776 | 13. ziurtagirira arte | 1.309.195 | % 105 | 2.131.620 |
| **Guztira ............** | **64** | **45** | **34** | | | | **6.975.466** | | |

*Ez dira oraindik ere jardunean hasi.

**Cascantek justifikatutako gastuek, ekipamendua barne, 1.122.324 euro egiten zuten.

Taula horretatik honakoa ondorioztatzen da:

